



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko uztailaren 16a

91. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—"Nafarroako Arartekoa, 2020ko ekitaldia" fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

"Nafarroako Arartekoa, 2020ko ekitaldia" fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak "Nafarroako Arartekoa, 2020ko ekitaldia" fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-21/CCO-00012).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

"Nafarroako Arartekoa, 2020ko ekitaldia" fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. El Defensor del Pueblo de Navarra-Nafarroako Arartekoa (3. or.).
- III. Helburuak eta norainokoa (4. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Auditoretza finantzarioko iritzia (5. or.).
 - IV.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (5. or.).
- V. Nafarroako Arartekoaren 2020ko urteko kontuen laburpena (6. or.).
 - V.1. 2020ko aurrekontuaren likidazioa (6. or.).
 - V.2. 2020ko aurrekontu-emaizta (7. or.).
 - V.3. Diruzaintzako gerakina 2020ko abenduaren 31n (7. or.).
 - V.4. 2020ko abenduaren 31ko balantzea (8. or.).
 - V.5. 2020ko ekonomia- eta ondare-emaiztaren kontua (9. or.).
 - V.6. 2020ko ondare garbian izandako aldaketan egoera-orria (10. or.).
 - V.7. 2020ko eskudiru-fluxuen egoera-orria (10. or.).
- VI. Konklusioak eta gomendioak (11. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (11. or.).
 - VI.2. Aurreko urteetako gomendioen jarraipena (12. or.).
 - VI.3. Kontratazioa (12. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2021erako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Arartekoaren 2020ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, Nafarroako Arartekoaren alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenean, gure lanaren helburuak eta norainokoa; laugarrenean, Arartekoaren 2020ko ekitaldiko finantzei eta urteko kontuen betetzeari buruz dugun iritzia, eta bosgarrenean, berriz, horien laburpen bat jasotzen da. Seigarrenean, azkena baita, gure lanaren konklusioak eta gomendioak jasotzen dira.

Landa-lana 2021eko maiatzean egin du lantalde batek, zeina auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatua baitzegoen. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Arartekoari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Ez da alegaziorik aurkeztu Kontuen Ganberak ezarritako epean; beraz, txostena behin betikoa izatera igaro da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Arartekoaren langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. EL DEFENSOR DEL PUEBLO DE NAVARRA-NAFARROAKO ARARTEKOA

Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, xedetzat duena Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunen babes-maila defendatu eta hobetzea. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea Administrazioaren balizko abusu eta zabarkerien aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18 ter artikuluan estatutu-mailako erakundearen kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Nafarroako Parlamentuak hautatzen eta izendatzen du Nafarroako Arartekoa, eta horrek urtero Parlamentuaren aurrean erantzuten du egindakoarengatik. Egun kargu hori betetzen duen pertsona 2007ko martxoaren 22an izendatua izan zen, sei urterako, eta gaur egun behin-behinekoz betetzen ditu bere eginkizunak. Bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren aholkulariak eta konfiantzazko langileak askatasunez izendatzen ditu eta kentzen ditu kargutik.

Nafarroako Arartekoa, kontabilitaterako, kontu-hartzailetzarako, gastu-baimenerako, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko, Nafarroako Parlamentuak daukan araubide beraren mende dago. Haren aurrekontu-proiektua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Arartekoari 2020an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea.
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2005eko azaroaren 21eko Erabakiaz onetsia.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantzen eta legezkotasunaren fiskalizazio bat egin da Nafarroako Arartekoaren 2020ko ekitaldiko urteko kontuei buruz, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2020ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Arartekoaren 2020ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Gure iritziz, Nafarroako Arartekoaren 2020ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion araeekin.

- Aurreko urteetako gomendioen betetzea.

Lanaren norainokoa Nafarroako Arartekoaren 2020ko urteko kontuak dira, kontabilitateko egoera-orri hauek dituztenak:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Balantzea.
- Emaitza ekonomikoari eta ondarearen arloko emaitzari buruzko kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2020ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

IV. IRITZIA

Nafarroako Arartekoaren 2020ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak jaso ditugu txosten honen V. atalean.

NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA

Nafarroako Arartekoa da urteko kontuak aurkeztu eta Nafarroako Parlamentuari igortzeko arduraduna. Urteko kontu horiek, Arartekoaren kontu-hartzaileak aurrez egindakoak, irudi zehatza azalduko dute ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari dagokienez, aplikatzekoak diren finantza-informazioari buruzko araei jarraituz. Halaber gaintitu beharko dituzte iruzur edo errakuntzaren ondoriozko oker materialik gabekoak izan daitezen beharrezkotzat jotzen duten barne kontrola.

Urteko kontuak aurkezteko erantzukizunaz gainera, Nafarroako Arartekoak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere ISSAI-ES 200 delakoa aplikatu dugu, fiskalizazio finantzarioei buruzkoa, bai eta ISSAI-ES 400 ere, betetzearen gaineko fiskalizazioei buruzkoa. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete

ditzagula, eta, halaber, lanaren plangintza eta exekuzioa halako moduan egin dezagula non halako segurtasun bat lortuko baitugu urteko kontuak oker materialik gabekoak izateaz, eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa alderdi adierazgarri guztietan arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak ekitaldi fiskalizatuan zehar betetzeari buruz ere.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorrek akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena.

Arriskuari buruzko balorazio horiek egitean, auditoreak beharrezkoa den barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak urteko kontuak egitekoa eta legeak betetzen dituela bermatzekoa—, horrela diseinatze aldera inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Azterketa honek barne biltzen du, era berean, ebaluatzea aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du finantza-auditoretzari eta legeen betetzeari buruzko gure iritzia funtsatzeko.

IV.1. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, 2020ko ekitaldiko urteko kontuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute Nafarroako Arartekoaren 2020ko abenduaren 31ko ondareaz eta finantza-egoeraz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere informazio finantzario publikoa dela-eta aplikatzekoa den araudiari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoaren 2020ko ekitaldiko jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

V. NAFARROAKO ARARTEKOAREN 2020ko URTEKO KONTUEN LABURPENA**V.1. 2020ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****Diru-sarrerak kapituluz kapitulua**

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehunekoa	Kobrantzak	Kobrantearen ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	100	100	0	0	0	-
4. Transferentzia arruntak	779.900	779.900	779.900	100	779.900	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	44	44	0	0	0	-
7. Kapital-transferentziak	13.000	13.000	13.000	100	13.000	100
8. Aktibo finantzarioak	200	200	0	0	0	-
9. Pasibo finantzarioak	100	100	0	0	0	-
Guztira	793.344	793.344	792.900	100	792.900	100

Gastuak, kapituluz kapitulua

Kapitulua	Hasierako kredituak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehunekoa	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa
1. Langile-gastuak	575.344	575.344	554.003	96	554.003	100
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	165.900	165.900	137.930	83	134.480	97
4. Transferentzia arruntak	38.800	38.800	29.225	75	29.225	100
6. Inbertsio errealak	13.000	13.000	9.016	69	9.016	100
8. Aktibo finantzarioak	200	200	0	0	0	-
9. Pasibo finantzarioak	100	100	0	0	0	-
Guztira	793.344	793.344	730.174	92	726.724	99

V.2. 2020ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2019			2020				
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizak
a. Eragiketa arruntak	770.992	724.361		46.631	779.900	721.158		58.742
b. Kapital-eragiketak	18.000	11.533		6.467	13.000	9.016		3.984
c. Merkataritza-eragiketak	0	0		0	0	0		0
1 Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	788.992	735.894		53.098	792.900	730.174		62.726
d. Aktibo finantzarioak	0	0		0	0	0		0
e. Pasibo finantzarioak	0	0		0	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	0	0		0	0	0		0
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizak (I=1+2)	788.992	735.894		53.098	792.900	730.174		62.726
Doikuntzak								
3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzatutakoak			0				0	
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			0				0	
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			0				0	
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)			0				0	
Aurrekontu-emaizak doituak (I+II)				53.098				62.726

V.3. DIRUZAINTZAKO GERAKINA 2020ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2019ko ekitaldia	2020ko ekitaldia
1. (+) Funts likidoak	103.060	108.441
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
(+) Ekitaldiko aurrekontuenak	0	0
(+) Aurrekontu itxienak	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	0	0
(+) Merkataritzako eragiketenak	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	103.060	108.441
(+) Ekitaldiko aurrekontuenak	2.637	3.450
(+) Aurrekontu itxienak	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	100.423	104.991
(+) Merkataritzako eragiketenak	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden kontu-sailak	0	0
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatu gabeak	0	0
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatu gabeak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	0	0
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III. Kobratzeko zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza gerakina= (I-II-III)	0	0

V.4. 2020KO ABENDUAREN 31ko BALANTZEA

(Emaiza aplikatu ondoren)

Aktiboa	2019	2020
A) Aktibo ez-arrunta	195.283	193.307
I. Ibilgetu ukiezina	5.217	2.305
3. Aplikazio informatikoak	5.217	2.305
II. Ibilgetu materiala	190.066	191.003
2. Eraikinak	107.689	103.960
4 Ondare historikoko ondasunak	41.509	41.817
5. Bestelako ibilgetu materiala	40.869	45.226
Makineria, instalazioak eta tresneria	2	392
Altzariak eta tresneria	1.592	1.295
Informazio-prozesuetako ekipamenduak	12.577	15.664
Bestelako ibilgetu materiala	26.699	27.875
B) Aktibo arrunta	103.060	108.441
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	0	0
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioki-deak	103.060	108.441
2. Diruzaintza	103.060	108.441
Kutxa	593	252
Bankuak eta kreditu-erakundeak	102.467	108.189
Aktiboa, guztira	298.343	301.748

Ondare garbia eta pasiboa	2019	2020
A) Ondare garbia	195.283	193.307
I. Jarritako ondarea	0	0
II. Sortutako ondarea	195.283	193.307
1. Aurreko ekitaldietako emaitzak	195.283	193.307
Ondarea	200.745	198.769
Lagapenean emandako ondarea	-5.462	-5.462
C) Pasibo arrunta	103.060	108.441
IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	103.060	108.441
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	2.637	3.450
3. Administrazio publikoak	100.424	104.991
Ogasun Publikoa, PFEZagatik hartzekodun	30.806	29.591
Ogasun Publikoa hartzekodun, eskubide pasiboak direla eta	2.344	2.344
Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketarengatik	53.098	62.726
Gizarte Segurantza hartzekodun	14.176	10.330
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	298.343	301.748

V.5. 2020ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2019	2020
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	788.992	792.900
a) Ekitaldikoak	788.992	792.900
a.2) Transferentziak	788.992	792.900
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	18.000	13.000
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	770.992	779.900
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira	788.992	792.900
8. Langile gastuak	-552.312	-554.003
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-447.478	-451.222
Arartekoaren erakundeko soldatak eta lansariak	-68.584	-70.041
Behin-behineko langileen soldatak eta lansariak	-251.006	-256.559
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-84.069	-87.144
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-43.819	-37.478
b) Gizarte-zamak	-104.834	-102.781
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantzza	-104.834	-102.781
9. Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	-36.260	-29.225
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-135.789	-137.930
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-135.789	-137.930
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-11.229	-10.655
B). Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+11+12)	-735.590	-731.813
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	53.402	61.087
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-galera eta haien besterentzearen emaitzak	-440	-337
b) Bajak eta besterentzeak	-440	-337
14. Arruntak ez diren beste kontu-sail batzuk	0	0
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA (I+13+14)	52.962	60.750
15. Diru-sarrera finantzarioak	0	0
16. Gastu finantzarioak	0	0
III. Eragiketa finantzarioen emaitza (15+16)	0	0
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (II+III)	52.962	60.750

V.6. 2020ko ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Guztira
Ondare garbia 2019ko ekitaldiaren bukaeran	0	195.283	195.283
Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta zuzenke-tengatik egindako doikuntzak	0	0	0
2019ko ekitaldiaren hasierako ondare garbi doitua	0	195.283	195.283
2020ko ekitaldian ondare garbiak izandako aldaketak	0	-1.976	-1.976
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	0	60.750	60.750
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	0	0	0
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	0	-62.726	-62.726
Ondare garbia 2020ko ekitaldiaren bukaeran	0	193.307	193.307

V.7. 2020ko ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	2019	2020
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak:	788.992	792.900
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	788.992	792.900
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	0	0
6. Beste kobrantza batzuk	0	0
B) Ordainketak:	767.297	778.503
7. Langile-gastuak	552.312	554.003
8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	36.260	29.225
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	135.410	137.116
13. Beste ordainketa batzuk	43.315	58.159
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)	21.695	14.397
II. INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	0	0
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	0	0
D) Ordainketak:	13.708	9.016
4. Inbertsio errealen erosketa	13.708	9.016
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)	-13.708	-9.016
VI. ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN HAN-DITZE/GUTXITZE GARBIA (I+II+III+IV+V)	7.987	5.381
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	95.073	103.060
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	103.060	108.441

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Nafarroako Arartekoaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Aurrekontu-likidazioa

- Nafarroako Arartekoaren hasierako aurrekontuak 793.344 euroko gastuak eta diru-sarrerak zeuzkan; zenbateko hori behin betiko aurreikuspenekin bat dator, ez baita guztizko zenbatekoa aldatzen duen aurrekontu aldaketarik egin.

- Aitortutako betebeharrak 730.174 eurokoak izan dira eta ehuneko 92ko betetze-maila izan dute. 2019an, betebeharrak horiek 735.894 eurokoak izan ziren.

- Aitortutako eskubideek 792.900 euro egin dute, eta betetze-maila ehuneko 100ekoa izan da. Diru-sarrera guztiak Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioetik heldu dira; horietatik, 779.900 euro funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratutako transferentzia arruntak dira, eta 13.000 euro, berriz, inbertsio-gastuetara bideratutako transferentziak.

- Nafarroako Arartekoak 2020an gastatutako 100 euro bakoitzetik honako helburu hauetarako erabili da euro bakoitza, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileak	76	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	19		
Transferentzia arruntak	4		
Inbertsioak	1		
	100		100

- Nafarroako Arartekoak, araudi indardunari jarraituz, 62.726 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari. Zenbateko hori, ondoren frogatzen den moduan, bat dator aurrekontuko superabitarekin:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	792.900
Gastuak, guztira	730.174
Aurrekontuko superabita	62.726
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	62.726

Plantilla organikoa eta jarduera

• Nafarroako Arartekoaren 2020rako plantilla organikoa 2020ko urtarrilaren 13ko 2/20 Ebazpenaren bidez proposatu zitzaion Nafarroako Parlamentuko Mahaiari onetsi zezan. Ez dago jasota plantilla organikoa onetsi zenik, zeren eta Parlamentuarena ere ez baitzen onetsi, eta Arartekoarena harekin batera onesten baita. Hala ere, plantillari buruzko proposamenak ez du inolako aldaketarik jasotzen aurreko urtean onetsitakoaren aldean. Abenduaren 31n, honako hauek dira langileak:

Langile mota	Plantilla organikoa	Langileak, abenduaren 31n
Behin-behinekoak	5	5
Funtzionarioak	3	2
Administrazio-kontratupekoak	-	1
Guztira	8	8

• Nafarroako Arartekoaren urteko txostenaren arabera, honako hauek dira 2020an zehar egindako jarduerari buruzko datu nagusiak:

- a) 3.393 jarduketa egin dira guztira; 2019an baino ehuneko 17 gehiago.
- b) 2020an 1.416 kexa aurkeztu dira, eta guztira 1.602 kexa kudeatu dira. Halaber, 1.740 kontsultari erantzun zaie.
- c) Nafarroako Arartekoak 325 ebazpen eman ditu, eta haietan biltzen dira 226 gomendio, 104 iradokizun eta legezko betebeharren 77 gogorarazpen.

VI.2. AURREKO URTEETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Aurreko urteetan emandako gomendioak bete ote diren aztertu dugu, eta honako hauek indarrean dira:

Nafarroako Arartekoaren plantilla organikoan hutsik dagoen administrari-lanpostua behin betikoz betetzea, langile kontratudun batek betetzen baitu 2008az gero.

VI.3. KONTRATAZIOA

Egiaztatu dugu kontratazioen adjudikazioak ez direla argitaratu Nafarroako Kontratazioaren Atarian, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 2/2018 Foru Legeak hori ezartzen duen arren.

Adjudikazioak argitaratzea gomendatzen dugu, baita munta txikiko kontratuenak ere, kontratu-araudian aurreikusitakoa betez.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikorena Matxain auditoreak proposatuta eman da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2021eko ekainaren 15ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga